



2016KO UZTAILAREN 19KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hemeretziaren, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko ekainaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2015EKO KONTU OROKORRA.-

2015 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2016ko ekainaren 14an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2016ko ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarrik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

2015eko kontu orokor hau berriro Kontuetarako Batzorde Bereziak 2016ko uztailaren 12an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, aho batez, 2015 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2015eko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2015ko urteko kontuak hartzen ditu barne.



IV.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA PARTE HARTZE PROZESUETAN PARTE HARTZAILEEN ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATU AHAL IZATEKOA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuak aurrera eraman nahi dituen parte hartze prozesuetan, parte hartzaileen egoitza eta udalerria zein den egiaztatzeko udal erroldara sarrera izatea beharrezkoa ikusten da. Hori horrela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena izenpetzea proposatzen da, eta hitzarmen horren helburua aurretik esan den hori izango litzake.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen parte hartze prozesuetan, parte hartzaileen egoitza eta udalerria zein den egiaztatzeko udal erroldara sarrera izatea ahalbidetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta zazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

